

**GOBERNUAREN IRUZURRAREN AURKAKO PLANARI BERARIAZ ATXIKITZEKO
DOKUMENTUA, IRUÑA OKAKO HELMUGAKO TURISMO JASANGARRITASUNEKO PLANA
GARATZEKO HELBURUAREKIN**

Miguel Ángel Montes Sánchez jauna, Iruña Okako Udaleko alkate-udalburua, , erakunde horren ordezkari gisa, ahalorde askietsia duena, egintza honetarako ahalmenduna 2022ko ekainaren 24ko Batzar Orokorraren arabera.

ADIERAZTEN DU

1.- Iruña Okako udala onuradun da Turismoko Estatu Idazkaritzaren 2021eko abenduaren 23ko Ebazpenak argitara eman zuen Turismoko Konferentzia Sektorialaren 2021eko abenduaren 21eko Erabakiaren arabera. Erabaki horretan finkatu ziren tokiko erakunde inbertsio-jarduketak finantzatzera bideratutako kredituaren banaketa-irizpideak, eta horien ondorioz autonomia-erkidego bakoitzari zegozkion funtsak Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren 1. Inbertsioaren 14. Osagaiaren esparruan. Aurreko ebazpena 2022ko apirilaren 11ko Ebazpenarekin aldatu zen eta bertan zehazten da Iruña Oka Helmugako Turismo Jasangarritasuneko Plana Euskadiko Helmugetako Turismo Jasangarritasuneko Lurralde Planaren barruan onuradun dela.

2.- Irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduak, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema eratzen duenak, 6. artikuluan ezartzen duenez, STEP neurrien betearazpenean parte hartzen duen erakunde erabakitzaile edo betearazle orok «iruzurraren aurkako neurrien plan» bat izan beharko du eta horri esker bermatu eta adierazi beharko du, dagokion jarduketa-eremuan, funtsak dagozkion arauen arabera aplikatu direla, bereziki, iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitzeari, antzemateari eta zuzentzeari dagokionez.

3.- 2022ko martxoaren 29ko Gobernu Kontseiluaren Erabakiarekin Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana gauzatzeko eskatzen diren iruzurraren aurkako, interes-gatazkako, finantzaketa bikoitzeko eta estatu-laguntzetako eta ingurumen-kalte ez-nabarmeneko baldintzak betetzeko Eusko Jaurlaritzaren Neurrien Plana onartu zen.

4.- Aipatu Planaren 2.2 atalean ezartzen denez, “Plan hau Euskal Autonomia Erkidegoko **sektore publikoari, Eusko Jaurlaritzaren bidez Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoaren funtsak jasotzen dituzten Foru eta Toki Administrazioei aplikatu dakieke**, eta era berean, aplikagarritasun zuzena edo egokitua edozein erakunde betearazle eta/edo kudeatzailetara zabaldu ahal izango da, borondatez hala erabakitzen bada.”

5.- Turismoko Estatu Idazkaritzaren 2022ko urtarrilaren 4ko Ebazpenak, kredituak autonomia-erkidegoei banatzea erabakitzen duenak, eta 2021eko abenduaren 21eko Turismoaren Konferentzia Sektorialaren akordiotik eratorritako finantza-konpromisoak formalizatzen dituenak, banaketa-irizpideak ezartzen ditu, baita autonomia-erkidegoei dagokionez ere, Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren 1. Inbertsioaren 14. Osagaiaren esparruko

ekintzen finantzaketari dagokionez eta 2021. urtean Euskadiri dagozkion funtsen banaketa zehazten da.

Azaldutakoagatik,

AITORTZEN DU

Iruña Okako Udalak, dokumentu honen bidez, Eusko Jaurlaritzaren kanpoko erakunde gisa, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana gauzatzeko eskatzen diren iruzurraren aurkako, interes-gatazkako, finantzaketa bikoitzeko eta estatu-laguntzetako eta ingurumenkalte ez-nabarmeneko baldintzak betetzeko Eusko Jaurlaritzaren Neurrien Planarekiko atxikimendua adierazten duela eta plan horretan jasotako betetzeko konpromisoa hartzen duela.

Iruña Okan, sinadura elektronikoaren egunean

Iruña Okako Udaleko alkate-udalburua

MONTES SANCHEZ
MIGUEL ANGEL -
44672973G

Firmado digitalmente por
MONTES SANCHEZ MIGUEL
ANGEL - 44672973G
Fecha: 2022.06.27 09:53:03
+02'00'

MIGUEL ANGEL MONTES SANCHEZ